

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.

Bilera-mota: Ohikoa.

Eguna: 2009/04/29

Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera:

Tokia: Legazpiko Udaletxeko Batzar Aretoa.

Organo o Comisión: Pleno.

Tipo de Convocatoria: Ordinaria.

Día: 29/04/2009

Hora: Comienzo: 19:30 y final:

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, Alkatea.

Mikel Alzelai Zulaika

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain

Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia

Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia

Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJko zinegotzia

Juan Ramon Larrañaga Mercero, EAKo zinegotzia

M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, EAKo zinegotzia

Vicente Garmendia Martinez, EAKo zinegotzia

Iñaki Sanchez Gastañares, EB-BERDEAKeko zinegotzia

Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia

Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEeko zinegotzia

Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEeko zinegotzia

Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.

Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, Alcalde.

Mikel Alzelai Zulaika

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain

Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV

Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV

Juan Miguel Urrutia Castillon, concejal de PNV

Juan Ramon Larrañaga Mercero, concejal de EA

M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de EA

Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA

Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-BERDEAK

Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita

Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE

Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE

Fernando Arakama Fernández, interventor.

Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

Aztergaiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2009-03-25 eta 2009-04-07ko bilkurei dagozkien aktak onartzea.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

2. Bidezkoa bada, Plazaola izeneko 20. hirigintza-eremuko xehetasun-azterketa behin betiko onartzea.
3. Bidezkoa bada Urtatza Zaharpe izeneko 40. hirigintza-eremuko a.20.1/2, a.20.1/3 eta a.20.1/4 blokeetan babes ofizialeko 46 etxebizitza esleitzeko administrazio-baldintzen agiria hasiera batean onartzea.
4. Bidezkoa bada, Urtatzola izeneko 45. hirigintza-eremuko Plan Partziala behin betiko onartzea

ALKATETZA:

5. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

MOZIOA

6. Erramun Uribeetxeberria jaunak lan arriskuei buruz aurkeztutako mozioa.
7. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

Orden del Día:

1. Aprobación, de las actas de las sesiones del 25/03/2009 y 7/04/2009.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

2. Aprobación definitiva, si procede, del Estudio de Detalle del A.U. 20 Plazaola.
3. Aprobación inicial, si procede, del pliego de condiciones administrativas para la adjudicación de 46 viviendas de VPO en los bloques a.20.1/2, a.20.1/3 y a.20.1/4 del A.U. 40 Urtatza Zaharpe.
4. Aprobación definitiva, si procede, del Plan Parcial del A.U. 45 Urtatzola.

ALCALDIA:

5. Dar cuenta de los decretos dictados.

MOCIÓN

6. Moción presentada por Erramun Uribeetxeberria sobre riesgos laborales.
7. Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

1.- Bidezkoa bada, 2009-03-25 eta 2009-04-07ko bilkurei dagozkien aktak onartzea.

Aldeko 11 botorekin eta bi abstentziorekin (Jose Morcillo eta Ana Salinero zinegotziak) onartu dira aipatu aktak.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

2.- Bidezkoa bada, Plazaola izeneko 20. hirigintza-eremuko xehetasun-azterketa behin betiko onartzea.

Alkateak hartu du hitza. Plan Orokorrekin bat datorren xehetasun-azterketak 5 solairuko eraikina aurreikusten du. Eraikin horretako beheko bi solairuak erabilera osagarrietarako izango dira, hala nola, garajeak eta trastelekuak; goiko hiru solairuak etxebizitzetarako izango dira. Joan den 2009ko otsailaren 9an hainbat baldintzapeko xehetasun-azterketaren hasierako onarpena argitaratu zen.

Jendaurrean egoteko epean alegazio bat jaso da.

Hirigintza batzordeak egin duen irizpenak honako hau dio:

Jendaurrean egon den epean Ismael Errasti Arrieta jaunak aurkeztutako alegazioa eztabaidatu ondoren, Hirigintza batzordeak ondoko proposamena egiten dio Osoko Bilkurari:

1.- Ismael Errasti Arrieta jaunak aurkeztutako alegazioa ez onartzea.

2.- Legazpiko Plazaola izeneko 20 hirigintza-eremuko xehetasun-azterketa behin betiko onartzea.

3.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman dadila agintzea.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, irizpena onartu egin da emaitza hauekin: aldeko 10 boto eta 3 abstentzio (PSE-EE taldeko bi zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzia).

1.- Aprobación, de las actas de las sesiones del 25/03/2009 y 7/04/2009.

Se aprueban con con 11 votos a favor y dos abstenciones (el concejal José Morcillo y la concejala Ana Salinero).

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

2.- Aprobación definitiva, si procede, del Estudio de Detalle del A.U. 20 Plazaola.

Toma la palabra el Alcalde. El estudio de detalle, en consonancia con el Plan General prevé un edificio de 5 plantas, en el que las dos plantas inferiores se corresponden a usos auxiliares al residencial, como son los garajes y los trasteros y las tres plantas superiores se corresponden a usos de vivienda. El 9 de febrero de 2009 se publicó la aprobación inicial del estudio de detalle con varias condiciones.

Durante el periodo de exposición pública se ha presentado una alegación.

El dictamen de la comisión de urbanismo es el siguiente:

Tratada la alegación interpuesta por Don Ismael Errasti Arrieta durante el periodo de exposición al público, la Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno:

1.- Desestimar la alegación propuesta por Don Ismael Errasti Arrieta.

2.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle del A.U. 20 Plazaola de Legazpi.

3.- Ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo, con 10 votos a favor y 3 abstenciones (los dos concejales del PSE-EE y la concejala Ana Salinero).

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

3.- Bidezkoa bada Urtatza Zaharpe izeneko 40. hirigintza-eremuko a.20.1/2, a.20.1/3 eta a.20.1/4 blokeetan babes ofizialeko 46 etxebizitza esleitzeko administrazio-baldintzen agiria hasiera batean onartzea.

Segidan, alkate jaunak hartu du hitza. Garbi geratu behar du agiriaren helburua Urtatza Zaharpeko a.20.1/2, a.20.1/3 eta a.20.1/4 blokeetan babes ofizialeko 46 etxebizitza egitea dela.

Hirigintza batzordeak ondoko proposamena egiten dio Osoko Bilkurari:

1.- Legazpiko URTATZA ZAHARPE izeneko 40. hirigintza-eremuko a.20.1/2, a.20.1/3 eta a.20.1/4 blokeetan babes ofizialeko 46 etxebizitza esleitzeko administrazio-baldintzen agiria hasiera batean onartzea.

2.- Dokumentua jendaurrean agerian jarriko da iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita 30 laneguneko epean. Epe horretan nahi adina erreklamazio eta alegazio aurkeztu ahal izango dira.

3.- Aipatu epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, irizpena onartu egin da emaitza hauekin: aldeko 12 boto eta abstentzio bat (Jose Morcillo zinegotzia).

4.Bidezkoa bada, Urtatzola izeneko 45. hirigintza-eremuko Plan Partziala behin betiko onartzea.

Ondoren, alkateak hartu du hitza. "Orubide SA" enpresak Urtatzola izeneko 45. hirigintza-eremuko Plan Partziala aurkeztu zuen. Segidan, Legazpiko alkateak, joan den 2008ko urriaren 25eko Dekretuaren bidez, Urtatzola izeneko 45. hirigintza-eremuko Plan Partziala hasiera batean onartu zuen.

3.- Aprobación inicial, si procede, del pliego de condiciones administrativas para la adjudicación de 46 viviendas de VPO en los bloques a.20.1/2, a.20.1/3 y a.20.1/4 del A.U. 40 Urtatza Zaharpe.

Toma la palabra el Alcalde. Ha de quedar claro que el objeto del pliego son las 46 viviendas de protección oficial de los bloques a.20.1/2, a.20.1/3 y a.20.1/4 de Urtatza Zaharpe.

La Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno:

1.- Aprobar inicialmente el Pliego de condiciones administrativas para la adjudicación de 46 viviendas de protección oficial en los bloques a.20.1/2, a.20.1/3 y a.20.1/4 del A.U. 40 URTATZA ZAHARPE de Legazpi.

2.- Someter el documento a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

3.- En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo, con 12 votos a favor y 1 abstención (el concejal José Morcillo).

4.- Aprobación definitiva, si procede, del Plan Parcial del A.U. 45 Urtatzola.

Toma la palabra el Alcalde. Por parte de Orubide, S.A. se presentó para su tramitación el Plan Parcial del AU 45 Urtatzola. El Alcalde de Legazpi, mediante Decreto fechado el día 25 de octubre de 2008 se aprobó inicialmente el Plan Parcial del A.U. 45 Urtatzola.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

Jendaurrean egon den epean alegazioak aurkeztu dituzte Julia Echeverria Garmendia andreak, Asuncion Echeverria Garmendia andreak, Legazpiko Udaleko Agenda 21, Jose M^a Echeverria Altuna jaunak eta 'Promociones Elortxo, SA' enpresaren izenean Andres Goenaga Alcibar jaunak. Alegazioak eztabaidatu ondoren, Hirigintza batzordeak ondoko proposamena egiten dio Osoko Bilkurari:

1.- Julia Echeverria Garmendia andreak, Jose M^a Echeverria Altuna jaunak eta Andres Goenaga Alcibar jaunak aurkeztutako alegazioak ez onartzea.

2.- Asuncion Echeverria Garmendia andreak aurkeztutako alegazioaren zati bat onartzea eta eremuaren muga bertan dauden lursailetara egokitzea baina eremutik kanpo dagoen txabolari buruzko eskaria ez onartzea.

3.- Legazpiko Udaleko Agenda 21ek aurkeztu duen alegazioa partzialki onartzea, dokumentuan ondoko aipamenak sartuz:

- Eraikinen diseinuan espazio eguzkitsuak, balkoiak eta kristalezko galeriak sartuko dira; halaber, beroa biltzeko bitarteko gunek aktiboak aurreikusiko dira.
- Eraikinen diseinuan, eraikuntza-materialen inertzia termikoaz baliatzeko irtenbideak aurreikusiko dira.
- Eraikinen diseinuan instalazioetarako aireberritzeko patio zabalak eta egokiak aurreikusiko dira, zerbitzuen banaketa egokia ahalbidetu eta haien mantentze-lana erraztuko dutenak.

4.- Legazpiko Urtatzola izeneko 45. hirigintza-eremuko Plan Partziala onartzea, dagokion testu bategina idazteko eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emanaz.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren, irizpena onartu egin da emaitza hauekin: aldeko 10 boto eta 3 abstentzio (PSE-EE taldeko bi zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzia)

Tratadas las alegaciones interpuestas en el periodo de exposición pública por Doña Julia Echeverria Garmendia, Doña Asunción Echeverria Garmendia, Agenda 21 del Ayuntamiento de Legazpi, Don José M^a Echeverria Altuna y Don Andrés Goenaga Alcibar en nombre de Promociones Elortxo, S.A. durante el periodo de exposición al público, la Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno:

1.- Desestimar las alegaciones propuestas por Doña Julia Echeverria Garmendia, Don José M^a Echeverria Altuna y Don Andrés Goenaga Alcibar.

2.- Estimar la alegación presentada por Doña Asunción Echeverria Garmendia en el sentido de reajustar el límite del ámbito a las parcelas existentes y desestimar lo referente a la demanda sobre la chabola externa del ámbito.

3.- Estimar parcialmente la alegación presentada por Agenda 21 del Ayuntamiento de Legazpi, incluyendo en el documento las siguientes menciones:

- Diseño de los edificios maximizando los espacios soleados, abalconados y con galerías acristaladas, como zonas activas intermedias de almacenamiento de calor.
- Diseño de los edificios con soluciones previstas para aprovechar la inercia térmica de los materiales de la construcción.
- Diseño de los edificios con patinillos de instalaciones amplios y adecuados que favorezcan una distribución adecuada de los servicios y faciliten su mantenimiento.

4.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial del A.U. 45 Urtatzola de Legazpi, ordenando la redacción y publicación del correspondiente texto refundido en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo, con 10 votos a favor y 3 abstenciones (los dos concejales del PSE-EE y la concejala Ana Salinero).

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

ALKATETZA:

5. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Dagoeneko banatuak izan dira.

MOZIOA

6. Erramun Uribeetxeberria jaunak lan arriskuei buruz aurkeztu duen mozioa.

Segidan, Erramun Uribeetxeberria zinegotziak mozioa irakurri du. 2009ko apirilaren 28a Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna dugu. Lan segurtasun eta osasunaren defentsan erreferentia da egun hori eta, eskubide hori urratuta dugun heinean, aldarrikapen eta borroka eguna ere bilakatu behar dugu.

Euskal Herria bezalako herri txiki batean eskandalu hutsa da enpresetan urtero izaten diren istripu, gaixotasun eta heriotza datuak; urtez urte 135.000 istripu inguru, 100 heriotza baino gehiago, lan gaixotasun baten ondorioz hiltzen diren milaka langile eta bizitza osorako ezintasun iraunkorraz beste horrenbeste geratzen dira.

2007. urtean lan istripuetan hildakoak 125 izan ziren; 2008. urtean 112 eta aurten jadanik, 20 langile hil dira.

Datu hauek izugarrikoak dira. Azken finean, langile hauek euren eta euren familien bizibidea ateratzen galdu dute bizitza. Gure gizarte garatu honetan, ditugun aurrerapen teknologiko guztiekin, datu hauek onartezinak dira. Horregatik, arazo sozial handi baten aurrean aurkitzen gara.

Lan egiten dugunon segurtasuna minimoki ezin badugu bermatu zerbait larria gertatzen ari da gure gizartean. Eta ezinbestekoa da arazo sozial honen oinarrietara jotzea. Azken urte hauetan lan antolaketan eredu berriak martxan jartzen ari dira. Besteak beste, malgutasun handiagoa eta lan erritmo intentsiboagoak. Hauek langilearen nekea handitu eta arreta galtzera eramaten dute, lan-istripua edukitzeko arriskua igoz. Hau da, langilearen esplotazioa handitzen den heinean, lan-istripuaren probabilitatea biderkatu egiten da.

ALCALDIA:

5.- Dar cuenta de los decretos dictados.

Ya se han repartido.

MOCIÓN

6. Moción presentada por Erramun Uribeetxeberria sobre riesgos laborales.

Da lectura de la moción el concejal Erramun Uribeetxeberria. El día 28 de abril, celebramos el Día internacional de la Salud laboral. Es un referente en la defensa de la seguridad y salud laboral. Asimismo, en la medida que este derecho no lo tenemos asegurado, ese día lo tenemos que convertir en un día de lucha y reivindicación.

En un pueblo tan pequeño como es Euskal Herria, es un escándalo el número de accidentes, enfermedades y muertes que se dan año a año en las empresas. Todos los años alrededor de 135.000 accidentes, más de 100 muertes, miles de trabajadores que mueren a consecuencia de enfermedades laborales y otros tantos que quedan con alguna incapacidad para toda la vida.

En el año 2007 fueron 125 los muertos; en el año 2008, 112 y en este año ya son 20 los trabajadores que han fallecido.

Estos datos son escalofriantes. Esos trabajadores han perdido la vida trabajando por sacar adelante el modo de vida de sus familias. En nuestra sociedad desarrollada, con todos los avances tecnológicos que disponemos, esos datos son inaceptables. Por eso, nos encontramos ante un tremendo problema social.

Si no podemos garantizar un mínimo de seguridad de los que trabajamos, algo grave está sucediendo en nuestra sociedad. Y es imprescindible ir a las raíces de este problema social. Estos últimos años se están poniendo en marcha nuevos modelos de organización laboral. Entre otros, mayor flexibilidad y ritmos de trabajo más intensivos. Todo ello aumenta el cansancio de los trabajadores y les lleva a perder la atención, aumentando el riesgo de sufrir un accidente laboral. Es decir, en la medida que aumenta la explotación de los trabajadores, las probabilidades de sufrir un accidente laboral se duplican.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

Lan-istripuen atzetik bi arrazoi nagusi daude. Alde batetik, enpresariak etekina ateratzeko grina beste edozein helburuen gainera jartzen dutelako. Sarritan aipatzen da segurtasunean gastatzen dena ez dela kostua, inbertsioa baizik. Zoritzarrez, gauzak ez dira horrela izaten, batez ere, enpresari askok epe motzeko etekin ekonomikoak begira daudelako. Eta asmo onak albo batetara gelditzen dira, tartean lan osasuna, ahalik eta etekin borobilenak lortzeko.

Eta bestetik, Euskal Herrian dugun arazoa gure Lan Harremanetarako Esparru propioa eraikitzeko, bi Estatuen inposaketari aurre egiteko. Hau, ezinbestekoa dugu gure lan harremanak antolatzeko, lan erreformei aurre egiteko eta bide batez lan-istripuak gutxitzeko.

Hau horrela izanik, Udal Osoko Bilkura honek ondorengo adierazpena egiten du:

1.- Lan istripuei aurre egiteko lan harreman eta prebentzio eredu ezberdinak beharrezkoak dira; osasuna, negozioaren orde, eskubidea eta lehentasuna izan dadin, arriskuei eta kalteei aurre egiteko eredu publiko, unibertsal, kalitateko eta parte-hartzailea aldarrikatu behar dugu.

2.- Udal honek ez du inolako obra edo zerbitzurik kontratatuko, lan arriskuen prebentzioko alorra bete ez duelako, gertaera larri edota oso larriagatik zigortu duten inolako enpresarik.

3.- Udalerrian lan istripu larria ematen bada, Udalak gertatutakoa argitzeko behar diren bitartekoak jarriko ditu, besteak beste, istripua gertatu den enpresako zuzendaritzarekin bilera bat eskatzea, istripuari buruzko informazio guztia eman dezan.

4.- Lan-istripu hau argitzeko akusazio partikularrak, fiskalak edo sindikatuek bide judiciala irekitzen badute, Udal honek herri-akusazio moduan aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Dos son las principales razones que hay detrás de los accidentes laborales. Por un lado, el afán que tienen los empresarios de conseguir beneficios por encima de cualquier otro objetivo. A menudo se comenta que lo que se gasta en seguridad no es un costo sino una inversión. Desgraciadamente, las cosas no suelen ser así, especialmente porque muchos empresarios están mirando los beneficios económicos a corto plazo. Y las buenas intenciones se quedan a un lado, entre ellas la salud laboral, para conseguir unos beneficios redondos.

Y por otro lado, está el problema que tenemos en Euskal Herria para poder construir nuestro propio ámbito para las relaciones laborales, para poder hacer frente a la imposición de dos Estados. Y eso es imprescindible para poder organizar nuestras relaciones laborales, poder hacer frente a las reformas laborales y, especialmente, para tener menos accidentes laborales.

Siendo eso así, este Pleno de la Corporación Municipal manifiesta lo siguiente:

1.- Para poder hacer frente a los accidentes laborales son necesarios modelos diferentes de relaciones laborales y prevención laboral. Para que antes de los negocios la salud sea un derecho y tenga prioridad, proclamamos un modelo público, universal, de calidad y participativo para poder hacer frente a los riesgos y daños.

2.- Este ayuntamiento no contratará ninguna empresa que haya sido sancionada por algún incidente grave o muy grave por no haber cumplido la normativa sobre prevención de riesgos laborales.

3.- Si en el municipio sucede algún accidente laboral grave, el ayuntamiento pondrá los medios necesarios para aclarar lo sucedido; así, entre otras cosas, solicitará una reunión con la dirección de la empresa donde ha sucedido el accidente para recabar toda la información sobre el mismo.

4.- Si la acusación particular, fiscal o los sindicatos abren una vía judicial para aclarar el accidente laboral, este ayuntamiento asume el compromiso de presentarse como acusación popular.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

5.- Azkenik, Udalak apirilaren 28an antolatu diren mobilizazioekin bat egiten du eta bide batez herritar guztiei deitzen die bertan parte hartu dezaten.

Segidan, eztabaida sortu da aurkeztu den mozioari buruz:

Jose Morcillo zinegotziak zentzuduna denak ezin duela lan-osasunaren aurka egon adierazi du. Lan-arriskuei aurrea hartzeko Legea gobernu sozialista batek onartu zuela ekarri du gogora. Baina mozio honetan gaiarekin zerikusia ez duten politika nazionalistaren alderdi batzuk sartu dira. Beraz, mozioaren aurkako botoa emango dute baina argi eta garbi utziz lan-osasuna defendatzen dutela.

Erramun Uribeetxeberria zinegotziak lan harremanetarako esparru propioa izango bagenu, gauzak hobeto joango lirakeela erantzun du.

Segidan, Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza. Ez dute mozioaren alde egingo eta beste mozio bat aurkeztuko dute EA taldearen izenean.

Jarraian, Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza. Bozeramaileen azkeneko bileran onartuko ziren puntuak adostu zirela eta hasierako testua zuzendu zela esan du. Orain, mozio alternatiboa egongo dela jakin du eta bozeramaileen batzordea egin zenetik aste bat pasatu dela eta mozioaren berri emateko astia egon dela azaldu du. Ez du mozioaren presa eta mozio alternatiboa onartzeko bozketan parte hartuko. Mozioaren alde egingo du, bozeramailearen batzordean esan zuen bezala.

Ane Urkiola zinegotziak bozeramailearen batzordean mozioaren aurrekariak kritikatu zituela esan du eta mozioaren edukia bere taldeari jakinarazteko eskubidea duela uste du.

Alkate jaunak bozeramailearen batzordeak bost puntuak adostu zirela eta gero talde bakoitzak defendatuko zituela erabaki zela esan du.

Mozioa erabakitzeko botoetara jo ondoren, atzera bota da honako emaitzekin: aldeko 4 boto (alkatea, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia) eta aurkako 9 boto (EAJko 3 zinegotziak, EAKo biak, PSE-EEko biak eta atxiki gabeko zinetzia).

5.- Finalmente, el Ayuntamiento apoya las movilizaciones que se organicen para el día 28 de abril y, asimismo, hace un llamamiento a la población para que tome también parte en ellas.

A continuación se genera un debate sobre la moción presentada:

José Morcillo señala que nadie en su sano juicio puede estar en contra de la salud laboral. Recalca que la Ley de Prevención de Riesgos Laborales fue aprobada por un gobierno socialista. Pero en esta moción se meten aspectos de política nacionalista que no viene al caso. Con harto dolor votarán en contra de la moción, dejando claro que defienden la salud laboral.

Contesta Erramun Uribeetxeberria que en un marco de relaciones laborales propio las cosas nos irían mejor.

Toma la palabra Ane Urkiola. No apoyarán la moción y presentarán otra moción con EA.

Toma la palabra Iñaki Sánchez. En la última Junta de Portavoces se consensuaron los puntos a aprobar, además se corrigió el texto inicial. Ahora se entera de que va a haber una moción alternativa, cree que ha habido una semana desde la Junta de Portavoces para comunicar la existencia de dicha moción. No va a entrar a votar la urgencia ni la moción alternativa. Votará a favor de la moción, tal y como se dijo en la Junta de Portavoces.

Ane Urkiola opina que en la Junta de Portavoces ella se mostró muy crítica con los antecedentes de la moción, considera que se reservó el derecho de trasladar a su grupo el contenido de la moción.

El Alcalde señala que en la Junta de Portavoces se consensuaron los cinco puntos y luego cada grupo defendería sus motivos.

Se vota la moción que cuenta con 4 votos a favor (Alcalde, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai y el Concejal de Ezker Batua Berdeak) y 9 en contra (3 concejales del PNV, 3 de EA 2 del PSE-EE y la concejala no adscrita). Por tanto, no se aprueba la moción.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

Ane Urkiola zinegotziak beste mozio bat aurkeztu du gai berdinari buruz. Lehenbizi, mozioa eztabaidatuko den edo ez erabakitzeko botazioa egin da eta aldeko 9 botorekin mozioa eztabaidatzea erabaki da. Alkate jaunak, Erramun Uribeetxeberriak, Mikel Alzelaik eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotziak ez dute botazioan parte hartu.

Segidan, Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta EA taldeak aurkeztu duen mozioa irakurri du:

Lan segurtasun eta osasunaren arazoak larritasun eta ondorioz handienak dituzten arazoan artean daude, eta gizarte modernoari eragiten diete.

Lanpostuetan hainbat motatako berezko istripu daudela ez da zalantzan jarri daitekeen zerbait, lanbide eta sektore batzuetan bereziki; hala ere garrantzitsua da istripu horien prebentzio posiblearen inguruan hausnartzea eta egun gertatzen diren laneko istripu eta lanbide gaixotasun asko ekiditea posible da. Lanarekin lotutako gaixotasun eta istripuak ekiditea, beraz, izan behar da Laneko Segurtasun eta Osasun programen helburua.

Laneko Segurtasun eta Osasuna eskubide bat izanik, arlo honetan esku hartzen duten eragile guztiek (Administrazio Publikoak, enpresaburuak, lantegiak, gizarte eragileak eta abar) arazo horrekiko duten erantzukizuna eta konpromisoa bere gain hartu behar dute.

Laneko ezbehar tasa murriztea lehentasuna duen zerbait da guretzat, izan ere, langileentzako egoera pertsonal eta familiar dramatikoak eragiten baititu eta ondorioz laneko osasuna eta segurtasuna prebenitzeko politikaren alde egiten dugu eta egingo dugu, langileen beharrezko babes mailak bermatu ahal izateko.

Horretarako, ezinbestekoa da prebentzioa, kontzientzia harraraztea eta sentiberatzea eta prestakuntzaren esparruetan jardutea eta laneko prebentzioaren araudia zehatz-mehatz betetzea.

Hau horrela izanik, Legazpiko Udala Osoko Bilkura honek ondorengo adierazpena egiten du:

1.- Laneko Segurtasun eta Osasuna, enpresaburu, langile, erakunde publiko eta gizartearentzat balio ekonomiko eta sozial bezala hautematen da.

Ane Urkiola anuncia la presentación de otra moción sobre el mismo asunto. En primer lugar se vota la urgencia para determinar si se procede a debatir o no la moción. Se aprueba la misma con 9 votos a favor. El Alcalde, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai y el Concejal de Ezker Batua Berdeak no participan en la votación.

Toma la palabra Ane Urkiola para dar lectura de la moción presentada junto a EA:

Los problemas de Seguridad y Salud Laboral están entre los problemas más graves y con consecuencias más duras que inciden a las sociedades modernas.

No se puede poner en duda, en algunos sectores en especial, que en los puestos de trabajo hay distintos tipos de accidentes, aún así, es importante reflexionar sobre la posible prevención de esos accidentes y sobre accidentes laborales y enfermedades que hoy en día es posible evitar. Por lo tanto, evitar accidentes y enfermedades laborales, es y tiene que ser el objetivo del programa de Seguridad y Salud Laboral.

Siendo la Seguridad y Salud Laboral un derecho, todos los agentes que intervienen (administraciones públicas, empresarios, empresas, agentes sociales, etc.) deben de tomar muy en cuenta la responsabilidad y el compromiso que tienen sobre ese problema.

Bajar la tasa de accidentes laborales es una prioridad para nosotros, y que provoca situaciones personales y familiares dramáticas. En consecuencia, estamos y estaremos a favor de políticas de prevención de Seguridad y Salud Laboral para poder garantizar el nivel de protección laboral necesario a los trabajadores.

Para ello, es imprescindible la prevención, tomar conciencia y sensibilizar a los sectores para que trabajen en la preparación del personal y cumplan a rajatabla las leyes de prevención laboral.

Siendo esto así, el Pleno del Ayuntamiento de Legazpi, manifiesta:

1.- La Seguridad y Salud Laboral se percibe como valor económico y social por parte de empresarios, trabajadores e instituciones públicas.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

2.- Beharrezkoa da eragile ekonomiko eta sozialen eta administrazio publikoen artean ahaleginak eta lana bateratzea. Erakundeek era koordinatu eta integratuan jardun behar dute laneko segurtasun eta osasun arloan.

3.- Ikuskapen, kontrol eta gainbegiratze lanen eraginkortasuna areagotzea bilatzen duten neurri eta ekimenak babestea eta sustatzea.

4.- Eskaintza publikoko prozesuetan segurtasuna eta osasuna zaintzera bideratutako irizpideak ezartzea.

5.- Administrazio publikotan lan duinean, segurtasunean, elkarrekiko errespetuan, aukera berdintasunean, elkarlanean eta zerbitzuaren kalitatean oinarritzen den prebentzioaren kultura gara dadin sustatzea.

Mozioa erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 9 boto jaso dira (EAJko zinegotziak, EAKo 3 zinegotziak, PSE-EEko 2 zinegotziak eta atxiki gabeko zinegotzia). Alkateak, Erramun Uribeetxeberriak, Mikel Alzelaik eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotziak ez dute botazioan parte hartu. Beraz onartu egin da mozioa.

7. Eskariak eta galderak.

Javier Iraeta zinegotziak Legazpiko Udalak laneko arriskuei aurrea hartzeko Legea nola betetzen duen galdetu du. Alkateak informazio guztia eskura duela erantzun dio.

Segidan, Ana Salinero zinegotziak hartu du hitza eta Osoko Bilkura osoari hitz egin nahi diola esan du.

Denok dakizuen bezala, Alkate jaunak KONTSEJUTIK aldizkarian idaztea debekatu zidan. Eta aldizkari hori Udaleko partida batekin finantzatzen da: 1.0101.110 00.227 01 – Aholkularitzako Zerbitzuak. Hasierako esleipena joan den 2008ko apirilean onartu zen 4.025,20 eurotan. Denok jakingo duzue, hilabete honetako aldizkarian, alderdi politikoak agertu ordez, zinegotziak ageri dira. Beraiek zinegotzi gisa idazten dute eta niri ez didate hitz egiteko aukerarik eskaintzen, ni beraien egoera berdinean nagoen arren.

2.- Es necesario aunar esfuerzos y trabajos entre agentes económicos y sociales y las administraciones públicas. Las instituciones deben de trabajar de manera coordinada e integrada en Seguridad y Salud Laboral.

3.- Fomentar y amparar acciones y medidas que identifiquen la eficacia de los trabajos de inspección, control y supervisión.

4.- Incorporar criterios de Seguridad y Salud Laboral en los procesos de oferta pública.

5.- Impulsar que en las administraciones públicas se desarrolle la cultura de la prevención basándose en los siguientes términos: el trabajo digno, seguridad, respeto mutuo, igualdad de oportunidades, colaboración y calidad del servicio.

Se vota la moción que cuenta con 9 votos a favor (3 concejales del PNV, 3 de EA, 2 del PSE-EE y la concejala no adscrita) y el Alcalde, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelaik y el Concejale de Ezker Batua Berdeak no participan en la votación. Por tanto, se aprueba la moción.

7.- Ruegos y preguntas.

Pregunta el concejal Javier Iraeta cómo cumple la Ley de Prevención de Riesgos el Ayuntamiento de Legazpi. El Alcalde contesta que tiene a su disposición toda la información.

Toma la palabra Ana Salinero para dirigirse a todo el Pleno. Me dirijo a ustedes para comentar la situación que llevo padeciendo desde noviembre del pasado año.

Como todas y todos sabéis, el Sr. Alcalde, me veto de escribir en la revista municipal KONTSEJUTIK, cuando esta revista está financiada con una partida del Ayuntamiento, la partida es la 1.0101.110 00.227 01 – Servicios de asesoría. La adjudicación inicial se produjo por un importe de 4.025,20 € en el mes de abril de 2008. Como también todos sabéis en el boletín de este mes, en vez de Grupos políticos, viene puesto como CONCEJALES, lo cual escriben ellos como concejales y a mí no se me da oportunidad de expresarme, cuando están en la misma condición que yo.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/04/29



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

29/04/2009

Alkate jaunarekin hitz egin nuen berriro egoera honetaz eta beraiek GOBERNU TALDEA osatzen dutela eta ni atxiki gabe nagoen zinegotzia naizela erantzun zidan. Horrezaz gain, gai horrekin nazkatuta zegoela eta nora joan behar dudan badakidala esan zidan; hori guztia, oihuen artean, mesprezuz eta bere bulegoko altzariei ostikoak emanez. Nola pentsatzen duzue sentitzen naizela, hautatua izan naizen zinegotzi moduan lan egiten uzten ez badidate?

Bestetik, gauza larriagoak ere gertatzen ari dira; horrela, ez didate hainbat bileretan parte hartzeko deialdiak bidaltzen, adibidez DOINUA Musika Eskolarekin egindako bileran.

Garbi dago, alkateak, bere taldeak eta beraren alde dauden talde politikoak hautatua izan naizen zinegotzi moduan ditudan eskubideak bortxatzen ari direla eta demokraziaren oinarritzko printzipioa urratzen ari direla.

Beraz, garbi dago ni makurraraztea eta, besterik gabe, niri eskubideak kendu nahi dizkidatela. Ez dut bestelako azalpenik aurkitzen.

Alkateak, arratsaldeko 20:10ak direnean, amaitutzat eman du bilkura, jai zoriontsuak opatuz. Eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

Hablé con el Sr. Alcalde sobre la situación, de nuevo, y me contesto, que ellos son el EQUIPO DE GOBIERNO y yo una concejal no adscrita, que estaba cansado de este tema y que ya sabía dónde tenía que acudir, todo ello con gritos, desprecios y patadas al mobiliario de su despacho. Como creen que me tengo que sentir yo si no me dejan trabajar como concejal electa que soy?

Aparte de este tema, está sucediendo algo aun más grave, donde no se me comunica la asistencia a algunas reuniones, por ejemplo con DOINUA MUSIKA ESKOLA.

Está claro, que el alcalde, su equipo y los Grupos políticos que le apoyan, no están más que violando mis derechos como concejal electa, vulnerándolos y faltando al principio básico de la democracia.

Por todo ello, está claro que lo único que desean es humillarme y quitarme mis derechos sin ton ni son. Porque no encuentro explicación a esta situación.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 20 horas y 10 minutos, desando felices fiestas. Y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau 2009/05/27(e)an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 27/05/2009:</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p>Jon Mikel Garagarza Roteta Idazkaria</p>	<p>Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>